

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **59/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, etxebizitza kolaboratiboak edo cohousinga sustatzeari buruzkoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

59/2022 Mozioa, ekainaren 8koa, etxebizitza kolaboratiboak edo cohousinga sustatzeari buruzkoa.

1. Arabako Batzar Nagusiek balorazio positiboa ematen diote Eusko Jaurlaritzaren 2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzaileari eta plan horretan etxebizitza kolaboratiboak edo cohousinga sustatzeko laguntza-programak eta pizgarriak jaso izanari, bai eta babestutako alokairua sustatzea eta garatzea etxebizitza eskuratzeko formula nagusizat edo lehenetsizat hartzeari ere.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote erakunde eskudunekin modu koordinatuan lan egin dezala 2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzailean jasotzen diren programak eta jarduketak ezartzean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**